

15 ZENBAKIDUN ORDENANTZA FISKALA

ORDENANTZA HONEK HURRENGO ZERBITZUAK ESKAINTZEAREN ONDORIOZKO TASAK ARAUTZEN DITU, HAIN ZUZEN, EUSKARA IRAKASTEARI, ETXEZ ETXEKO ETA HIRUGARREN ADINEKOEN LAGUNTZARI, ETA KULTURA ETA KIROLARI DAGOZKIONAK.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Foru Arauean aurrikusitakoari jarraiki, hain zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzeko dagoena, Udal honek, Eranskinean zehazten diren zerbitzuak eskaintzearen eta jarduerak egitearren tasak ezarri eta galdatzen ditu, Ordenantza honetan agertzen diren terminoen arabera, izan ere, eranskin hura ordenantza honen zati besterik ez baita.

2. Artikulua.- Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. Artikulua.- Zergapeko egitatea dagoela ulertuko da, hain zuzen, Ordenantza honetan zehaztutako zerbitzu eta jarduerak Udalak berak edo horren Erakunde Autonomoek eskaini edo egitean.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Bizkaiko Lurraldeko Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 34 artikuluan agertzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte, edo zerbitzu edo jarduera horren ondorioz, onuradun edo haren eraginpean suertatzen badira.

5. Artikulua.- Tasak ordaintzeko obligazioa dute:

- a) Partikularren eskariz egiten diren zerbitzu edo jarduerak direnean, eskari hori egin dutenek.
- b) Partikularrek eskatu gabe egiten diren zerbitzu edo jarduerak diren kasuetan, baina horien ekintzetatik edo ezegitetatik ondorioztatuak balira, aipatu ekintza edo ezegitea atxiki lezaiekeenak.

IV.- SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

6. Artikulua- Salbuespenak eta beste onura fiskalak, Foru Arauetan ezarrikoaren menpe, egongo dira.

V.- ZERGA OINARRIA

7. Artikulua.- Tasaren zerga-oinarria, jarduera edo zerbitzua gauzatzen den bakoitzean, sortuko da, hain zuzen, Eranskinean agertzen diren terminoen arabera.

VI.- KUOTA

8. Artikulua.- Zergaren kuota, Eranskinean ezarrita dagoenaren arabera, tarifa baten aplikaziotik eratorritako kopurua, edo horretarako ezarritako kopuru zehatz bat izango da, edo bi prozedurak batera aplikatuztik ondorioztatzen den kopurua.

VII.- ZERGAREN SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. Artikulua.- Tasa, zerbitzua edo jarduera egiten denean, sortzen da. Ondorio horretarako, zerbitzua edo jarduera, horretarako eskaria aurkezten denean, hasten dela ulertzen da.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10. Artikulua.- Udalak kontzeptu bakoitzagatik legokion likidazioa praktikatuko du, eta indarreango zerga bilketako arautegian ezarrita dagoen araberako kopurua sartuko da, salbuetsirik egonik, hala ere, Eranskinean barne sartutako arau partikularretan dioena. Edozelan ere, Udalak tasa horiek eska ditzake autolikidazio erregimenean.

IX.- TASEN KUDEAKETA

11. Artikulua.- Bizkaia Lurralde Hiztorikoko Zergari buruzko Foru Arauan eta hori garatzen duen arautegian aurrikusitakoa hartuko da kontuan, bai Ordenantza honetan araututako Taseen likidazio, bilketa eta ikuskapenerako, bai zerga-hausteei buruzko kalifikaziorako, eta kasu bakoitzean, dagozkion zehapenen zehaztapenerako.

X.- XEDAPEN IRAGANKORRA

Urriaren 8ko 9/1998 Foru Arauaren 3. Atalean, Xedapen Iragankor bakarrean, ezarritakoaren arabera, zeinak ekainaren 30eko 5/89 Foru Araua aldatzen zuen, Ordenantza honetan araututako tasak ez dira jakinarazpen indibiduala egiteko baldintzaren menpean egongo, Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 100. artikulua dioen moduan, baldin eta aldizkako izaera badute, eta tasaren kuota bat baldin badator ordainketa egiteko obligazioa duenarekin, eta prezio publikoaren zenbatekoarekin, hain zuzen, udal eskuduntzakoak diren zerbitzu publikoak eskaintzearen edo jarduerak egitearen, eta 1999ko abenduaren 31an indarrean daudenak badira.

Ondorio horietarako, errezibuaren ondoriozko aldizkako kobrantzen tasei dagokien zenbatekoa bat dator, aurretik indarrean egon diren prezio publikoekin; horri hala ere, Basauriko Udalak, ondorio horretarako, izaera orokorrarekin onetsi duen gaurkotze-kopurua gehitu behar zaio.

XI.- AMAIERAKO XEDAPENA.

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25ean, a 2009ko irailaren 24ean, 2011eko azaroaren 11ean, 2012eko azaroaren 19ean, 2013eko azaroaren 19ean eta 2014eko urriaren 30ean osoko bilkuretan.)

ORDENANTZA HONEK HURRENGO ZERBITZUAK ESKAINTZEAREN ONDORIOZKO TASAK ARAUTZEN DITU, HAIN ZUZEN, EUSKARA IRAKASTEARI, ETXEZ ETXEKO ETA HIRUGARREN ADINEKOEN LAGUNTZARI, ETA KULTURA ETA KIROLARI DAGOZKIONAK.

E R A N S K I N A

I.- BASAURIKO UDAL EUSKALTEGIA.-

IKASTAROETARA JOATEAGATIKO KUOTA	
IKASLEA ETA ORDUA	0,64€
LANGABEZIAN DAGOEN EDO DBE-REN ONURADUNA DEN IKASLEA ETA ORDUA	0,46€

II.- PERTSONA NAGUSIEN EGOITZA

BASAURIKO "ETXE MAITIA" PERTSONA NAGUSIEN UDAL EGOITZAREN BIDEZ, LAGUNTZA ETA EGONALDIARI DAGOKION ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIKO TASA. TARIFA

Ordenantza honetan araututako tasa finkatzeko, hurrengo egoerak izango dira kontuan:

a) SARTU ZIREN ETA BEREN KAXA BALIATZEN DIREN PERTSONEN EGONALDI IRAUNKORRAK

Beren kaxa baliatzen diren pertsonen egonaldi iraunkorrak: 1.353,71 euro hileko

b) SARTUKO DIREN ETA BEREN KAXA BALIATZEN DIREN PERTSONEN EGONALDI IRAUNKORRAK

2010 urtean, beren kaxa baliatzen diren Pertsonen egonaldi iraunkorra: 1.800,00 euro hileko

c) ALDIBATEKOEDO BEHIN BEHINEKO EGONALDIAK

Aldi baterako egonaldiak, bai bere kabuz baliatzen diren pertsonena bai menpetasuna dutenena: 70,95 euro eguneko.

d) LAGUNDUTAKO PERTSONEN EGONALDI IRAUNKORRENGATIK

Bizkaiko Foru Aldundiak, behingoan gertatzearren, laguntza-hartzaile gisa ezagutu dituen pertsona erabiltzaileak, foru arautegiak ezarritako prezio publikoa ordainduko

dute, menpeko pertsona nagusien egoitzako zerbitzu publikoa arautzen duen arategiak hain zuzen (abenduaren 16ko 11/2005 Foru Araua eta abenduaren 20ko 209/2005 Foru Dekretua).

III.- KULTUR ETXEAK.-

A.- ARTE PLASTIKOETAKO IKASTAROETARA JOATEA	
IKASLEA ETA HILABETEA EDO ZATIKIA	29,40 €
IKASLE TXARTELA DUEN EDO LANGABEZIAN DAGOEN IKASLEA ETA HILABETEA EDO ZATIKIA	14,70 €
IKASTARO BATERA BAINO GEHIAGOTARA JOATEAGATIKO HOBARIA	% 15
BASURIN ERROLDATUTA EGOTEAGATIKO HOBARIA	% 10
B.- TAILER ETA LUDOTEKARA JOATEA	
ERLAXATZE IKASTAROA	9,60 €
TAI JIA	12,80 €
PLASTIKA I (Ordu 1 eta erdiko saioa)	8,50 €
PLASTIKA II (Ordu 1eko saioa)	6,40 €
BITXIGINTZAKO IKASTAROA	31,90 €
ALTZARIEN ZAHARBERRIKUNTZAKO IKASTAROA	29,80 €
LUDOTEKA	9,60 €
IKASLE TXARTELA DUEN EDO LANGABEZIAN DAGOEN IKASLEAREN ZAKO HOBARIA	% 50
IKASTARO BATERA BAINO GEHIAGOTARA JOATEAGATIKO HOBARIA	% 25
C.- IKASTAROAK EDO JARDUERAK	
GUTXIENEN PREZIOA	6,50 €
GEHIENEN PREZIOA	163,40 €
D.- BEDERATZIETAN PROGRAMAREN JARDUERETARA JOATEA	
TXARTELA	3,70 €
SOCIAL ANTZOKIA	
A.- TXARTELAK	
ZINE-KLUBA	4,00
HAURRENTZAKO ZINEMA	4,00
ZINEMA	5,00
ZINEMA DBEa jasotzen duten familientzat	3,00
IKUSKIZUNEN TXARTELA	ARTISTAREN SOLDATAREN ARABERA
B.- URTEKO BONUAK	
SOCIAL ANTZOKIKO LAGUNAK	43,70 €
SOCIAL ANTZOKIKO LAGUN GAZTEAK	24,10 €
BAZKIDE KOLABORATZAILEAK	225,00 €
BAZKIDE BABESLEAK	900,20 €
C.- DESKONTUAK	
Social Antzokiko Lagunen Elkartea.	% 35
10 pertsonatik gorako talde egiaztatuak	% 30
Gazte Txartela eta hitzarmenak sinatzen dituzten beste gazte-txartel batzuk dituzten ikasle egiaztatuak	% 30
50 pertsonatik gorako talde egiaztatuak	% 50
DBEa jasotzen duten familientzat	% 20
Basauriko denden bazkide-txartela (BASAURI TXARTELA) dutenentzako	% 10
D.- ALOKAIRUA	
Egun erdiko alokairua	1.222,30 €
Egun osoko alokairua	2.444,50 €
E.- BEHARRIZAN TEKNIKOAK	
"Eszenatoki osoko" argiztapen diseinua	200,00 €
Aurrealdeko proiektagailua + pantaila	30,00 €
Ordenagailua	15,00 €
Ziklorama + 15 panorama baran eta/edo lurrean	45,00 €

Jarraitzeko kanoia	20,00 €
Ohiz kanpoko foku gehigarria	5,00 €
Lurreko argi beltza	10,00 €

ESPAZIOAK LAGATZEKO ZERBITZUA. ERRESERBA ETA ALOKATZEA

1.- Espazioak lagatzea

Basauriko kultur etxeetako, gizarte-etxeetako eta kultur instalazioetako espazioak lagatzeko zerbitzua espazio bat edo material teknikoa lehentasunez erakundeei, elkartei edo udalerriko kultur taldeei, baita partikularrei, enpresei eta elkarte profesionaleri ere, lagatzean edo errentan uztean datza, beren jarduerak burutu ahal izateko. Edonola ere, lehentasun osoa izango dute soziokulturalak direnek.

Basauriko kultur etxeetan, gizarte-etxeetan eta kultur instalazioetan burutzen diren jarduerak legea bete beharko dute eta batez ere pertsonen eta herritarren eskubideen inguruan ebazten duen konstituzioa. Hortaz, ezin izango dira gauzatu indarkeriaren, terrorismoaren eta intolerantziaren apologia bultzatzen duten edo, generoa, arraza, kultura edo erlijioagatik edukia edo eskuratzeko eskubidea dela eta edonor bazterten duten ekitaldiak.

2.- Erreserbatu daitezkeen espazioak.

Kultur etxeetako, gizarte-etxeetako eta kultur instalazioetako espazioak erreserbatu eta alokatu ahal izango dira udal ordenantza fiskaletan ezartzen denaren arabera. Erreserbatu eta alokatu daitezkeen espazioak ordenantza horietan zehaztuko dira eta libre daudenean eta eskarian adierazitako jarduera zehatza burutzeko baldintzak betetzen dituztenean erabili ahal izango dira.

Hala ere, irabazi asmorik gabeko elkarteek edo erakundeek antolatutako kultur jarduerak izango dute lehentasuna. Udal Kultur Etxeak kulturaltzat bakarrik jotzen ez diren beste mota bateko jarduerak gauzatzen dituzten erakundeak "partikular edo enpresa"-tzat jotzeko eskubidea du. Horrez gain, halakotzat jotzen direnez tarifak kobratu behar dituzte.

Espazioen erabileran lehentasun osoa izango dute, hurrenkera honekin, Udal Kultur Etxeak, Udalak eta honen sailek eta instituzioek egindako beste eskaerek.

Hortaz, instalazioak erabiltzeko aukera ematea Udal Kultur Etxeak antolatutako edo baimendutako ekitaldien araberrako izango da, ez da erreklamaziorik aurkezterik izango baldin eta halakoen ondorioz baimendutako lagapena bertan behera utzi edo ordutegia aldatu beharra badago. Hala ere, ahal dela 48 ordu lehenago emango da horren berri.

3.- Erreserbaren prozedura eta eskarien tratamendua

Espazio baten erabilera kasuan kasuko gizarte-etxean eta/edo kultur etxean eskatu beharko da eskaera-orri baten bidez; bertan eskatu nahi den espazioa, ordutegia, beharrian teknikoak eta garatuko den jardueraren laburpena zehaztu beharko dira.

Eskaera-orria jarduera burutu baino gutxienez 15 egun lehenago igorri beharko da, zentroetan zuzenean entregatuz edo postaz edo posta elektronikoz bidaliz. Ez dira onartuko jarduera burutuko den eguna baino hiru hilabete lehenagoko eskaerak.

Gizarte-etxeak edo kultur etxeak eskatzaileei onartutako edo ukatutako erreserbak idatziz baieztatuko dizkie eskaera jasotzen denetik 2 eta 5 egunen buruan. Erantzunean eskatutako zerbitzu guztiak ordaintzeko zenbatekoa agertuko da. Behin

betiko erreserba ez da egingo eskatzaileak ezarritako tarifak ordaindu arte; ordainketa erreserbaren onarpena egiaztatzen denetik 10 egun igarotakoan egin beharko da. Debehatuta dago eskaera-orrian agertzen den erakundea ez den beste batek erabiltzea espazioa; debehatuta dago baita ere erreserba-protokoloan (eskaera-orria) deskribatzen dena ez bezalako jarduera burutzea.

Basauriko kultur etxeak erakundeari, taldeari edo enpresari, edo espazioa eskatzeko xede den jarduerari buruz informazio zehaztua eskatzeko eskubidea du. Horiek ez betetzeak zentroak jarduera bertan behera uztea eragin dezake.

Burutuko diren jarduerak kultura arlokoak izan beharko dira batez ere; baldintza hori bete ezean, elkarteak eskaerak partikular edo komertzialtzat joko dira eta, beraz, kasuan kasuko tarifak ordaindu beharko dituzte.

Erakunde berari espazio bat lagatzeak, aldizka izan arren, ez du inola ere zentroan erakundearen edo taldearen egoitza soziala ezartzeko aukera izango. Halaber, zentroko espazioaren erreserba hiru hilabeterik behin berritu beharko da.

4.- Espazioak erreserbatzeko eta alokatzeko eskaera egiteko baldintzak

Espazioak erreserbatzeko eta alokatzeko eskaera jarduera bat burutu nahi duen edozein pertsona edo talde erabiltzailek egin ahal izango du erregelamendu honen hitzaurrean ezarritakoarekin bat etorritik.

Erreserba baimendu ondoren, eskaerako datuetan egin daitezkeen aldaketa guztien berri eman beharko die Udal Kultur Etxeari.

Espazioen erreserba egiten denean eta erreserbak irauten duen denboran talde, elkarte, klub edo erakunde eskatzaileko arduradun bat egon beharko da bertan.

Burutuko den jarduerarekin edo erreserbatzen den espazio-motarekin bat etorritik, espazioak erreserbatzeko eskaerak adingabeek egiten dituztenean, Udal Kultur Etxeak haien legezko tutoreen baimena eskatu ahal izango du. Halaber, taldeko arduradun heldu bat bertan egotea erabaki ahal izango da.

Erakunde eskatzaileak ekitaldiaren erantzukizuna eta jarduerak instalazioei zein objektuei eta/edo altzariei eragin diezaiaketen kalteak beregain hartuko ditu.

Erakunde eskatzaileak espazioaren baimendutako edukiera errespetatzeko konpromisoa hartuko du.

Udal Kultur Etxeak baldintza partikularrak ezarri ahal izango dizkie espazioen erreserba jakinei erregelamendu honetan ezarritakoa bete dezaten, baita organo eskudunen bidez hemen jasota ez dauden baldintzetan espazio jakinak erabiltzeko aparteko baimena eman ere.

5.- Tarifak

Gizarte-etxeetan eta kultur etxeetan erabilgarri dauden espazioak erabiltzeak Udal Prezio Publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskalean onartu eta jasoko diren tarifak ordaintzea dakar berekin.

Zerbitzuaren tarifen zenbatekoa erreserba baieztatu ondorengo 10 egunetan ordainduko da, eta edonola ere, jarduera burutu aurreko hiru egun lehenago gutxienez.

Eskatzen den denbora gaindituz gero, orduen zatikiak ordu osotzat joko dira eta fidantzatik kenduko dira.

Baldintza hori bete ezean erreserba ez da eginda egongo. Ordainketa bankuan dirua sartuz edo zentroan bertan dirutan emanez egin ahal izango da.

Gizarte-etxeetako eta kultur etxeetako espazioak erabiltzeak, kasu batzuetan, espazioa egoki eta ondo erabiltzearen berme bezala fidantza bat ordaintzea dakar berekin. Gordailu hori jarduera amaitzen denean itzuli egingo da, jarduera amaitu eta gutxienez ondorengo 10 egun igarotakoan.

Gelari, altzariei edo materialari kalte edo akatsen bat eraginez gero, horiek konpontzeko gastuak berme moduan utzitako fidantzatik kenduko dira.

Jarduera ohiko ordutegitik kanpo garatzen bada edo ordutegia luzatu behar izanez gero, eskatzaileek langileen eta ordutegia luzatzearen gastuak ordaindu beharko dituzte jardueraren ondorengo egunetan. Halaber, ekitaldietako soinuaren eta argien langile teknikoaren edo azpiegituren alokairuaren gastuen ardura hartu beharko dute.

Jarduera burutzeko giza baliabideei edo baliabide teknikoiei dagokienez beharizan bereziak izanez gero, kultur etxeak zerbitzu horiek ematen dituzten enpresekiko harremanak erraztuko ditu.

Zerbitzua emateagatik eragiten diren aparteko zerbitzuak ere eskatzaileek hartuko dituzte beregain, berme bezala jarritako fidantzatik kenduz.

Talde edo bakarkako artistek gela edo espazio jakinak tailer, laborategi, eta abar bezala erabiliz gero, ordainketa kontraprestazio artistiko bidez egiteko erabakia hartu ahal izango da; edonola ere zentroak baloratuko du eta bi aldeek konpromiso-protokolo bat sinatu beharko dute.

Erakundeek, taldeek edo elkarteek ezin izango dute produktuen edo objektuen salerosketarik egin, ongintzazko edo elkertasunerako helburuak izan ezean; horretarako aurretiaz zentroaren oniritzia izan beharko dute beti. Egitate hori eskaera-orrion jarduera deskribatzen den atalean azaldu beharko da.

Lagapenaren barruan antolatutako jardueretara sartzeko sarrera edo beste edozein kuota kobratzen duten irabazi asmorik gabeko erakundeei ez zaie aplikatuko espazioak lagatzeko zerbitzuaren kuota murriztua, baizik eta partikularrei enpresei edo elkarte profesionalari aplikatzen zaien kuota.

Honako hauek daude espazioak lagatzeko zerbitzuaren tarifen ordainketaren tasetatik libre:

Estatua, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Basauriko Udala

Udalaren titularitatekoak diren zerbitzuak.

Huteskunde garaiko alderdi politikoak eta langileen sindikatuek beren batzarrak egiteko antolatutako ekitaldiak.

Bereziki sozialak eta kulturalak diren erakundeak eta, irabazi asmorik gabe, udalerriko biztanleentzat zalantzarik gabe interesekoak diren jarduerak burutzen dituztenak.

Tasen ordainketek ez dituzte barne hartzen muntatzeko edo aparteko antolaketarako aparteko lanak. Espazio baten erreserbaren onuradunek, aurrez itundutako adostasuna izan ezean, beren bitarteko teknikoak izan beharko dituzte (langileak eta materiala) jarduerak garatzeko. Elementu jakinak erabiltzeko, maneiatzeko edo

muntatzeko, Udal Kultur Etxeak horiek burutu ditzaketen enpresak edo pertsonak zehaztu ahal izango ditu; lan horien eta erabiliko diren materialak garraiatzearen kostua beti erakunde eskatzaileari egokitzen zaiola kontuan hartuz.

6.- Itzulketak

Udal Kultur Etxeak alokairuaren zenbatekoa itzuliko du zentroak berak bertan behera utzi edo instalazioen egoerak erabilera egokia ahalbidetzen ez duenean. Hala gertatzen denean erreserba beste egun batetara ere aldatu ahal izango da eta ezaugarri berberak dituen espazio baterako.

Itzulketa eraginpeko espazioa dagoen zentroan izapidetu beharko da, zazpi eguneko epean. Itzulketa izapidetzeko erreserba ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Eskatzaileak jarduera burutu aurreko hamabost egun lehenago erreserba bertan behera utziz gero, ordaindu beharreko zenbateko osoa hartzeko edo erreserba beste egun baterako egiteko eskubidea izango du. Erreserba jarduera egiten hasi aurreko hiru egunetan bertan behera utziz gero, ordaindutako zenbatekoaren % 50 itzuliko zaio.

7.- Espazioak erabiltzeko ordutegiak

Basauriko gizarte-etxeetako eta kultur etxeetako espazioak lagatzeko zerbitzuen ordutegia ekipamendu bakoitzaren ordutegiak bezalakoa da eta, ahal den neurrian, eskatzaileak ordutegi hori bete beharko du.

Eskatzaileak erreserbaren fitxan jardueraren hasieraren ordu zehatza eta jardueraren amaieraren ordua adierazi beharko ditu, eta ordutegi berean jardueraren iraupena barne hartuko du; beharrezkoa izanez gero, ekitaldia muntatzeko eta desmuntatzeko ordutegia.

Jarduera zentroaren ordutegitik kanpo burutzen denean edo ordutegia luzatu behar denean, eskatzaileak aparteko langileen gastuen kargu egin beharko dira, eta ordutegiaren luzapena orduen zatikiak ordu osotzat hatuz zenbatuko da.

8.- Erreserba bertan behera uztea

Udal Kultur Etxeak, beharrezkoa izanez gero, instalazioaren erabilera okerra dela eta erreserbak bertan behera utzi ahal izango ditu, baita burutzen diren jarduerak erreserba egiteko arrazoiak izan zirenen kalterako direnean.

Era berean, Udal Kultur Etxeak erabiltzaileei eta oro har jendeari instalazioak guztiz edo partzialki ixteko aukera izan dezake ustekabeko arrazoiren bat dela eta instalazioen erabileran edozein modutako arriskuak egon daitezkeela erabakiz gero.

Udal Kultur Etxeak gizarte-etxeetan eta kultur etxeetan egindako erreserba bat atzeratu edo bertan behera utz dezake, betiere arrazoitutako eta jendearen interesekoa den zioz eta, posible izanez gero, jarduera burutzeko beste espazio bat emango da. Jardueraren burutzapena 48 ordu lehenago ohartarazteko ahalegina egingo da.

9.- Erakundeentzako lokalak

Kultur etxeak zentro jakinetan erakundeentzat aparteko erabilerarako edo partekatuzko bulegoak edo biltegiak bezalako espazioak dauden erabaki ahal izango du. Espazio horiek denbora mugatu baterako esleituko dira, hitzarmen bidez eta aurrez deialdia jendaurrean eginda.

10.- Hedapena eta irudi-eskubideak

Zentroak gelak edo espazioak lagatzeko zerbitzuaren erabiltzaileei hedatzeko kanalak eta zentroko informazio-gunea erraztuko dizkio.

Erakunde eskatzaileak, ekitaldia hedatzeko materiala argitaratuz gero, erreserbaren eskaeran jarduera hedatzeko formatua eta testuak gehituko ditu, eta horien hedapenez eta publizitatea banatzeari buruzko udalaren araudia betetzeaz arduratuko da.

Eskatzaileak jardueratik argitaratzen duena hedatzean ezin izango da agertu zentroaren logotipoa edo marka, ez eta instituzioaren irudia zuzendaritzak aurrez baimenik eman gabe. Aurrez hala erabakiz gero, kultur etxearen logotipoa azaldu ahal izango da jardueraren erakunde laguntzaile bezala.

Jarduera hedatzean ez da azalduko zentroko telefono zenbakia. Ekitaldiari buruzko informazioa eskuratzeko, jardueraren erakunde antolatzaileak hartu beharko du beregain bere egoitza sozialean eta bere baliabideekin.

11.- Lokalak erreserbatzeko eta alokatzeko araudia

Lokal eta instalazio kulturalak erreserbatzeko arau bereziak egongo dira eta horien kasuan kasuko tarifak. Erreserba eraginkorra izan dadin, alokatzeko prezioa eta/edo udal tasak arautzen dituen ordenantzan ezarritako fidantza ordaindu beharko da, horiek ordaintzetik libratzen diren kasuetan izan ezik.

BASOZELAI GIZARTE ETXEA						
GELAREN IZENA NOMBRE SALA	EKIPAMENDUA EQUIPAMIENTO	AFOROA AFORO	ERRESERBAREN PREZIOA PRECIO RESERVA			FIDANTZA FIANZA
			ORDUA HORA	EGUN OSOA (8 ordu) JORNADA COMPLETA (8 horas)	EGUN ERDIA (4 ordu) MEDIA JORNADA (4 horas)	
EKITALDI ARETOA SALÓN DE ACTOS	Proiektzio kanoia Cañón proyección DVDa DVD Idazteko mahaixkak dituzten besaulkiak Butacas con palas para escribir	64	15,60 €	104 €	52 €	78 €
ERABILERA ANITZEKO GELAK SALAS POLIVALENTES (URBI, AZBARREN, ARIZ, KALERO)	Mahaiak eta aulkirik Mesas y sillas	35	12,50 €	88 €	42 €	62 €
ARTUNDUAGA GELA SALA ARTUNDUAGA	Ez mahairik ez aulkirik No dispone de mesas ni sillas	200	20,80 €	166 €	83 €	156 €
ERABILERA ANITZEKO GELA BIKOITZA SALA POLIVALENTE DOBLE (URBI+AZBARREN)	Mahaiak eta aulkirik Mesas y sillas	70	15,60 €	104 €	52 €	78 €

KAREAGA GIZARTE ETXEA						
GELAREN IZENA NOMBRE SALA	EKIPAMENDUA EQUIPAMIENTO	AFOROA AFORO	ERRESERBAREN PREZIOA PRECIO RESERVA			FIDANTZA FIANZA
			ORDUA HORA	EGUN OSOA (8 ordu) JORNADA COMPLETA (8 horas)	EGUN ERDIA (4 ordu) MEDIA JORNADA (4 horas)	
EKITALDI ARETOA SALÓN DE ACTOS Gela bikoitza Sala doble (MALMASINPAGASARRI)	Proiektzio kanoia Cañón proyección Mahaiak eta aulkiak Mesas y sillas	70	15,60 €	125 €	52 €	78 €
MALMASIN GELA SALA MALMASIN	Proiektzio kanoia Cañón proyección Mahaiak eta aulkiak Mesas y sillas	35	12,50 €	88 €	42 €	62 €
PAGASARRI GELA SALA PAGASARRI	Mahaiak eta aulkiak Mesas y sillas	35	12,50 €	88 €	42 €	62 €

POZOKOETXE KULTUR ETXEA						
GELAREN IZENA NOMBRE SALA	EKIPAMENDUA EQUIPAMIENTO	AFOROA AFORO	ERRESERBAREN PREZIOA PRECIO RESERVA			FIDANTZA FIANZA
			ORDUA HORA	EGUN OSOA (8 ordu) JORNADA COMPLETA (8 horas)	EGUN ERDIA (4 ordu) MEDIA JORNADA (4 horas)	
BASKONIA	Proiektzio kanoia Cañón proyección DVDa DVD Aulkiak sillas	60	15,60 €	125 €	52 €	78 €
URDAIBAI	TB TV DVDa DVD Aulkiak sillas	20	10,40 €	73 €	36 €	26 €
NERVION	TB+DVDa +mahaiak eta aulkiak TV+DVD+mesas y sillas	12	10,40 €	73 €	36 €	26 €

SAN MIGUEL KULTUR ETXEA						
GELAREN IZENA NOMBRE SALA	EKIPAMENDUA EQUIPAMIENTO	AFOROA AFORO	ERRESERBAREN PREZIOA PRECIO RESERVA			FIDANTZA FIANZA
			ORDUA HORA	EGUN OSOA (8 ordu) JORNADA COMPLETA (8 horas)	EGUN ERDIA (4 ordu) MEDIA JORNADA (4 horas)	
LAPATZA	TB+DVDa+aulkiak TV + DVD + sillas	15	10,40 €	73 €	36 €	26 €
VILLVERDE	Arbela+mahai bat eta aulkiak Pizarra +1 mesa y sillas	20	10,40 €	73 €	36 €	26 €
ARETO NAGUSIA SALÓN DE ACTOS (Lapatza + Villaverde)	TB+DVDa+mahai bat eta aulkiak TV+DVD, 1 mesa y sillas	55	12,50 €	88 €	42 €	62 €

<u>TABERNA MAYOR SAN MIGUEL</u>						
GELAREN IZENA NOMBRE SALA	EKIPAMENDUA EQUIPAMIENTO	AFOROA AFORO	ERRESERBAREN PREZIOA PRECIO RESERVA			FIDANTZA FIANZA
			ORDUA HORA	EGUN OSOA (8 ordu)	EGUN ERDIA (4 ordu)	
				JORNADA COMPLET A (8 horas)	MEDIA JORNADA (4 horas)	
ARETO NAGUSIA SALÓN DE ACTOS	Proiektzio kanoia Cañón proyección DVDa DVD Soinu ekipamendua Equipo de sonido Aulkiak sillas	150	31,20 €	250 €	125 €	208 €

OHARRAK:

- 1.- Jarduera burutzeko giza baliabideei edo baliabide teknikoei dagokienez beharrian bereziak izan ezker, edo jarduera ohiko ordutegitik kanpo garatu ezker, kultur etxeak zerbitzu horiek ematen dituzten enpresekiko harremanak erraztuko ditu. Gastuak ekitaldia antolatzen duen erakunde edo enpresaren kontura izango dira.
- 2.- Partikularrek, enpresek eta elkarte profesionalek horri dagozkion tarifak ordaindu beharko dituzte, eta baita ere, espazioaren erabilera zuzena eta egokia bermatzeko fidantza. Baita ere, irabazi asmorik gabeko elkarrekin fidantza eta tarifak ordaindu beharko dituzte, baldin eta horiek sarrera edo edozein motatako kuota kobratzen badute.
- 3.- Baldin eta eskatutako denbora gaindituko balitz, ordu-zatikiak ordu oso bezala hartuko dira.
- 4.- Lagapena doakoa izango da Udalarentzat, eta irabazi asmorik gabeko Institutio, Elkarte eta Erakundeentzat.

IV. KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA

LEHENENGO TARIFA: INSTALAZIOETAKO BONUAK.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

BANAKAKO BONUA

- Behar bezala betetako eskabidea
- Txartel tamainako argazki eguneratua
- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia
- Kuotaren ordainagiria edo bankuko helbideratzea egiteko datuak

FAMILIAKO BONUA

- Behar bezala betetako eskabidea.
- Familiako kide guztien txartel tamainako argazki eguneratua
- Familiaburuaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia
- Kuotaren ordainagiria edo bankuko helbideratzea egiteko datuak

KASU BEREZIETAKO BONUAK

Aurretik adierazitako dokumentazioarekin batera, banakako karneta ala familia-karneta izan, honako hau ere eskatuko da:

- Bere kasuan, eskaera egiten duten pertsonen diru-sarrera maila egiaztatzen duten dokumentuak, eta/edo gizarte-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentua. Aipatu diru-sarrerak etxebizitza berean bizi diren familia-unitateko kideen diru-sarrera guztiak barne hartzen dituela ulertuko da.
- Medikua aginduz kirol-instalazioak erabili behar badira, errehabilitazioan aditua den medikuaren egiaztagiria erantsiko da. Egiaztagiri horrek jaso behar du kirol-instalazioak erabili beharra dagoela sendatzeko edota errehabilitazioa egiteko, eta gero, Basauri Kirolak-ek balioetsiko du beharizan hori.
- Gazte Txartela edota banakako karnetetarako sinatutako hitzarmenei dagozkien bestelako txartelak aurkeztea.
- Familia ugariaren onurak jasotzeko, familia liburua edo egoera hori egiaztatzen duen beste edozein agiri ofizial aurkeztuko da. Horrez gain, 19 urtetik 26 urtera bitarteko seme-alabek egiaztatu beharko dute ekonomikoki familia-unitatearen menpe daudela eta, horretarako, langabezian daudela eta etxebizitza berean bizi direla jasotzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko dute.
- 19 urtetik gorako seme-alabak familia abonamenduan sartzeko beharrezkoa izango da haiek familiaren etxebizitzan bizitzea eta ekonomikoki familia-unitatearen menpe egotea. Horretarako, langabezian daudela eta gurasoen PFEZean ageri direla jasotzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

BONUAREN ZERBITZUAK

- Abonatua dela egiaztatzen duen agiria ondorio horretarako emandako txartel izenduna da, pertsonala eta besterenezina dena. Titularra ez denak erabiltzen badu, txartela kenduko da hilabeterako, eta ez da egongo inolako eskubiderik KUEk inolako diru-kopururik itzultzeko.

Oro har, KUEko bonuak honako zerbitzu hauek biltzen ditu:

- Kirol instalazioetara doan sartzea.
- Instalazioak erreserbatzeko lehentasuna, erreserba hori 7 egun nahiz ordu erdi lehenago egin dezakeela.
- KUEk antolatutako ikastaro eta jardueretan izena emateko lehentasuna.
- KUEk antolatutako ikastaro eta jardueretako kuoten murrizketa.
- Frontoi, padel, tenis eta pabiloien alokairuko prezioaren % 50eko murrizketa lanegunetan 7:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, eta 16:00etatik 20:00etara larunbat, igande eta jaiegunetan.
- Atletismo pista doan erabiltzea.
- Artunduagako kiroldegiko oinarrizko gimnasioa doan erabiltzea.
- 18 urtetik beherakoek instalazioetako erabileraren gaineko % 50eko murrizketa izango dute, erreserbatu beharreko instalazioaren ordua hasi baino bost minutu lehenago erreserbatuz gero.

BONUEN BALIOA

URTEKO BONUAK

Edozein egunetan bideratzen dela ere, urteko bonua baliozkoa izango da uneko urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, edo bideratze datatik aurrera, urtarrilaren 1aren ondoren bideratu bada.

SEI HILEKO BONUAK

Edozein egunetan bideratzen dela ere, sei hileko bonua baliozkoa izango da udako kanpaina abiarazten den egunetik uneko urteko abenduaren 31ra arte, edo bideratze datatik aurrera, udako kanpaina abiarazi ondoren bideratu bada.

1.- FAMILIAKO BONUAK:

Familia buruaren izenean ematen dena izango da, eta onuradunak izango dira, horren ezkontidea edo lagunkidea eta 19 urtetik beherako seme-alabak; bere jaiotzeguna kontuan hartu gabe, barne hartzen ditu eskubide honek, minusbaliotasun fisiko edo mental larriak dituztela egiaztatzen duten seme-alaba guztiak.

Horrelako abonamenduak eskatu ahal izango dituzte 19 urtetik gorako seme-alabak dituzten familiak ere, baldin eta seme-alabak familiaren etxebizitzan bizi eta ekonomikoki gurasoen menpe badaude.

Urtekoak	157,50 €
Sei hilekoak	117,50 €

2.- BANAKAKO BONUAK:

Horrelakotzat hartzen dira hori eskatzen duten pertsona guztienak eta 18 urtetik gorako pertsona guztienak.

Urtekoak	99,00 €
Sei hilekoak	73,00 €

3.- KASU BEREZIETAKO BONUAK

3.1.- LANBIDE ARTEKO GUTXIENEO SOLDATATIK BEHERAKO DIRU-SARRERAK DITUZTENEN EDO GIZARTE LAGUNTZEN (GGD EDO GLL) HARTZAILEAK DIRENEN BANAKAKO ETA FAMILIAKO BONUETARAKO:

Bonuaren kuotaren % 60ko hobaria. Horrez gain, doakoa izango da luza daitekeen 3 hilabeteko denboraldirako, errehabilitazioko espezialista baten aginduz erabat beharrezkoa bada kirol instalazioak erabiltzea pertsonaren sendatze-prozesuari edo errehabilitazioari laguntzeko, KUEk beharrian hori baloratuko duela.

3.2.- GAZTE TXARTELA ETA HITZARMENAK SINATZEN DITUZTEN BESTE TXARTEL BATZUK DITUZTEN BANAKAKO ABONATUENTZAT ETA BASAURIKO UDALAK ETA/EDO KUE-K SUSTATUTAKO GENEROAREN ALDEKO KIROL KANPAINETAN PARTE HARTZEN DUTEN EMAKUMEEN ALTA BERRIETARAKO.

Bonuaren kuotaren % 20ko hobaria.

3.3.- FAMILIA UGARIENTZAT EDO 3.1 EPIGRAFEAN ADIERAZITAKO EGOERAN DAUDEN FAMILIENTZAT:

26 urtetik beherako seme-alabak barne hartuko dira.

3.4.- ABEGIKO ADINGABEEI BURUZKO GIZARTE PROGRAMETAN PARTE HARTZEN DUTEN FAMILIENTZAT:

Abegiko adingabeentzat eta haiekin doan familiako kidearentzat doakoa izango da, kide hori abonatua ez bada eta abegi aldiak irauten duen bitartean.

3.5.- KUE-REKIN HITZARMENAK SINATZEN DITUZTEN ENPRESETAKO LANGILEAK:

Udalerrian erroldatuta daudenek dituzten tasa berdinak izango dituzte.

4.- ERROLDATU GABEEN BONUAK

Basauri udalerrian erroldatu gabeek % 30eko erreargua ordainduko dute bonuaren kuotan.

5.- KARNETAREN KOPIA

Karnetaren kopia	2,00 €
------------------	--------

BIGARREN TARIFA: TXARTELAK

1.- URBI KIROLDEGIKO TXARTELA: Sartze eta erabilera bakar baterako balio du.

Abonatuak:	Librea
Abonatu gabeak:	
16 urtetik gorakoak	2,60 €
16 urtetik beherakoak	1,35 €
3 urtera artekoak	Doan

2.- ARTUNDUAGAKO KIROLDEGIKO TXARTELA: Sartze eta erabilera bakar baterako balio du.

Abonatuak:	Librea
Abonatu gabeak:	
16 urtetik gorakoak	4,60 €
16 urtetik beherakoak	2,80 €
Jardueraren saioa duten 16 urtetik gorakoak	2,60 €
Jardueraren saioa duten 16 urtetik beherakoak	1,35 €
3 urtera artekoak	Doan

3.- 15 PERTSONATIK GORAKO TALDEENTZAKO IGERILEKUETARAKO ERABILERA BAKARREKO TXARTELA.

Abonatuak:	Librea
Abonatu gabeak:	
16 urtetik gorakoak	4,10 €
16 urtetik beherakoak	2,40 €

4.- IGERILEKUEK 10 TXARTELEKO BONUA.

10 Sarrera, bonoa eskuratu den urte naturalen barruan erabiltzeko

Abonatuak:	Librea
Abonatu gabeak:	
16 urtetik gorakoak	41,00 €
16 urtetik beherakoak	24,15 €

5.- KIROL IKUSKIZUNETAKO TXARTELA.

A maila	21,00 €
B maila	10,50 €
C maila	5,25 €

HIRUGARREN TARIFA: ALOKAIRU ARRUNTAK.

Erreserbak ordubeterako izango dira beti, bestela zehaztu ezean.

Instalazioen erabileren erreserbak haiek egiteko unean eta eskubideaz gozatu aurretik ordainduko dira.

KUEko kirol instalazioak entrenamendu eta lehiaketetarako modu programatuan erabiltzen dituzten klubek, eskola ekipoek eta kirol elkarteek % 10eko deskontua izan ahalko dute tarifa honetan ezarritako prezioetan.

Basauriko klubek eta kirol elkarteek eskubidea izango dute urtean behin ekitaldi aretoa doan erabiltzeko, haien ohiko batzar orokorra egiteko.

1.- FRONTOIAK

1 zenbakiko frontoia	6,10 €
1 zenbakiko frontoiko argiaren gehigarria	3,30 €
2 eta 3 zenbakietako frontoia	4,20 €
2 eta 3 zenbakietako frontoietako argiaren gehigarria	2,25 €

2.- PISTA ESTALIA

Ordua	19,40 €
-------	---------

Argiaren gehigarria	3,50 €
---------------------	--------

3- PABILOIA

Ordua	24,70 €
Argiaren gehigarria	4,30 €

4.- PABILOIKO MODULUA

Ordua	10,50 €
Argiaren gehigarria	1,85 €

5.- GIMNASIOA

Ordua, argia barne	11,25 €
--------------------	---------

6.- FITNESS ETA INDOOR ZIKLOKO GELA

Ordua, argia barne	24,60 €
--------------------	---------

7.- FUTBOL ZELAIA

Ordua, txartela barne:	
Futbol zelaia	58,90 €
7ko futbol zelaia	35,90 €
Argiaren gehigarria	6,90 €

8.- TENISA (ORDUA)

Aire zabaleko tenis pista	4,20 €
Tenis pista estalia	6,10 €
Argiaren gehigarria	2,45 €

9.- MAHAI-TENISA

Ordua	1,75 €
-------	--------

ATLETISMO PISTA

Abonatuak	Librea
Abonatu gabeak hiruhilekoan	33,10 €

11.- ERROLDATU GABEKO ATLETA FEDERATUAK

Urteko banakako txartela	37,80 €
--------------------------	---------

12.- SAUNA

Abonatuak:	
Saioa	3,25 €
10 saioko bonua	28,90 €

Abonatu gabeak:	
Saioa	4,00 €
10 saioko bonua	36,25 €

13- ERABILERA ANITZEKO GELEN ERABILERA

Ordua (argia barne, baina ekipamendurik gabe)	11,55 €
Ordua (argia eta ikus-entzunezkoen ekipamendua barne)	23,65 €
Egun erdia (argia eta ikus-entzunezkoen ekipamendua barne)	69,30 €

14.- PADELA (ORDUA)

Aire zabaleko padela	4,20 €
Argiaren gehigarria	1,75 €

15.- ESKALADA MURRUKO ETA BOULDER GELAKO TXARTELA

Abonatuak:	
Eguna (Sartze eta erabilera bakar baterako balio du)	1,10 €
Hilabetea	9,65 €
Urtea	32,55 €
Basauriko Mendi Klubetako abonatu federatuak	Doan

16.- ERABILERA PARTEKATUKO INSTALAZIOEN ERRESERBA

Igerilekuko kalea	28,90 €
Igerileku osoa	95,55 €
Zuzena eta atletismo pista	68,80 €
Aldagela	13,65 €
Eskalada murrua	24,70 €

KUErekin hitzartutako ordutegietan.

LAUGARREN TARIFA: KIROL MATERIALEN ALOKAIRUAK ETA BESTELAKOAK

Mahai-teniseko pala jokoa eta pilota	1,05 €
Frontoiko kaskoa	1,45 €
Baloiak	1,95 €
A ile-lehorgailua	0,05 €
B ile-lehorgailua	0,10 €
Bainu txanoen salmenta	2,00 €
Armairuko giltzaren galera	7,90 €
Padeleko pala	1,85 €
Teniseko/Padeleko piloten potoa	5,00 €
Teniseko erraketa	1,75 €
Arnesa	2,00 €
Pultsometroa	1,05 €
Teniseko erraketa apurtzea	14,50 €
Padeleko erraketa apurtzea	29,50 €
Egun erdiko megafonia	98,50 €

1.- PUBLIZITATEA

Arau orokor gisa, Basauri Kirolak-en instalazioetan publizitate estatikoa jartzeko tarifak honako hauek dira:

Astean 6 m ² -ra arte, ekoiztea eta jartzea kanpo utzita	75,00 €
Hilean 6 m ² -tik aurrera, ekoiztea eta jartzea kanpo utzita	250,00 €

BOSGARREN TARIFA: IKASTAROETAN PARTE HARTZEA

1.- JARDUERA FISIKOEN 21 PERTSONATIK GORAKO IKASTAROAK

Abonatuak:	
Astean 2 ordu	19,80 €
Astean 3 ordu	27,35 €
Ordu 1eko gimnasia saioa	3,60 €
Ordu 1 eta erdiko gimnasia saioa	5,20 €

Abonatu gabeak:	
Astean 2 ordu	33,60 €
Astean 3 ordu	44,85 €

2.- JARDUERA FISIKOEN 20 PERTSONA ARTEKO IKASTAROAK

Abonatuak:	
Astean 2 ordu	27,15 €
Astean 3 ordu	37,15 €

Abonatu gabeak:	
Astean 2 ordu	38,85 €
Astean 3 ordu	49,45 €

3.- JARDUERA FISIKOEN 12 PERTSONA ARTEKO IKASTAROAK

Abonatuak:	
Astean 2 ordu	34,15 €
Astean 3 ordu	42,55 €

Abonatu gabeak:	
Astean 2 ordu	43,70 €
Astean 3 ordu	52,90 €

4.- JARDUERA FISIKOEN 8 PERTSONA ARTEKO IKASTAROAK

Abonatuak:	
Astean 2 ordu	37,50 €
Astean 3 ordu	46,00 €

Abonatu gabeak:	
Astean 2 ordu	48,40 €
Astean 3 ordu	58,65 €

5.- FITNESS MAKINAK ETA/EDO INDOOR BIZIKLETAK ERABILTZEN DITUZTEN JARDUERA FISIKOEN IKASTAROAK

FITNESS-MUSKULAZIOA

Abonatuak	31,00 €
Abonatu gabeak	46,25 €
Saioa	4,95 €

INDOOR ZIKLOA

Abonatuak	31,00 €
Abonatu gabeak	46,25 €
Saioa	4,95 €

6.- PROGRAMA KONBINATUAK: AEROBIKA + FITNESSA; BIHOTZERAKO AEROBIKA + FITNESSA; MANTENTZE-GIMNASIA + FITNESSA; URETAKO BIZIKLETA + FITNESSA.

Abonatuak	39,50 €
Abonatu gabeak	52,50 €

7.- ESKALADA IKASTAROAK.

Ordu 1eko saioa	
Abonatuak	4,70 €
Abonatu gabeak	6 €

8.- ADINEKOENTZAKO GORPUTZ HEZKUNTZA

a).- 481,05 €-tik beherako diru-sarrerak dituztenak	Librea
b).- 481,05 eta 641,40 € arteko diru-sarrerak dituztenak	
Banakakoa hiruhilekoan...	11,75 €
Senar-emazteak hiruhilekoan	17,95€
c).- 641,40 €-tik gorako diru-sarrerak dituztenak	
Banakakoa hiruhilekoan...	19,90 €
Senar-emazteak hiruhilekoan	29,80 €

9.- IGERIKETA IKASTAROAK Matrikula eta ikastaroa

8 pertsona arteko hiruhilekoko ikastaroa:	
Abonatuak	76,20 €
Abonatu gabeak	117,40 €

12 pertsona arteko hiruhilekoko ikastaroa:	
Abonatuak	61,15 €
Abonatu gabeak	94,90 €

12 pertsonatik gorako hiruhilekoko ikastaroa:	
Abonatuak	46,05 €
Abonatu gabeak	71,10 €

Astean 3 orduko hileko ikastaroa:	
--	--

Abonatuak	27,60 €
Abonatu gabeak	45,25 €

Adinekoentzako hiruhilekoko igeriketa ikastaroa:	
Abonatuak	28,00 €
Abonatu gabeak	40,50 €

Bizkarrezurrerako hiruhilekoko igeriketa ikastaroa:	
Abonatuak	76,00 €
Abonatu gabeak	117,40 €

Uretako gimnasiako hiruhilekoko ikastaroa:	
Abonatuak	55,10 €
Abonatu gabeak	93,00 €

Igeriketa ikastaro berezia: astean saio 1	
Abonatuak	56,00 €
Abonatu gabeak	86,30 €

Umetxoen igeriketa ikastaroa: astean saio 1	
Abonatuak	56,00 €
Abonatu gabeak	86,30 €

Eskola umeentzako igeriketa kanpaina	Doan
---	------

Eskola umeen taldeen igeriketa, begiralerik gabe (ikaslea)	1,45 €
---	--------

Eskola umeen taldeen igeriketa, begiralearekin (ikaslea)	1,75 €
---	--------

Igerilekuko jolasen eguna	2,55 €
----------------------------------	--------

10.- TENIS ETA PADDLE ESKOLA PARTIKULARRAK

Irakaslearen lanordua, erreserba barne	27,00 €
---	----------------

11.- ENTRENATZAILE PERTSONALA

Irakaslearen lanordua	27,00 €
------------------------------	----------------

12.- BEHERAPENAK ETA HOBARIAK

- % 7ko beherapena aplikatu ahal izango da, zentimoaren hamarrekora arte gorantz borobilduta, hiru hilabete edo horien parekoa dena aurretiaz kobratzetik ondorioztatutako tarifyan.
- % 14ko beherapena aplikatu ahal izango da, zentimoaren hamarrekora arte gorantz borobilduta, hamabi hilabete aurretiaz kobratzetik ondorioztatutako tarifyan.
- Deskontua duten aurretik ordaintzeko aldiak KUEk ezarriko ditu.

11.- SUSTAPEN ETA DENBORALDIKO LEHIAKETAK ETA KANPAINAK

Tarifak aurrekontuaren arabera zehaztuko dira.

Oharra: Tarifa honetan sartutako prezio guztiak hilabeterakoak dira, bestelakoa adierazi ezean.

SEIGARREN TARIFA: PROGRAMATUTAKO ERRESERBAK

A.- KIROL JARDUERAK: Instalazioaren erreserba prezioaren % 170 (txartelak barne).

Garbiketa, langileko eta orduko	25,00 €
---------------------------------	---------

Erreserbak ordubeterako izango dira beti, bestelakoa zehaztu ezean.

Argiak piztu behar badira, argiaren bidezko gehigarria ordainduko da.

B. – KIROLAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUTEN JARDUERAK

350 ikusle baino gutxiagorentzako espazioa	787,50 €
350 ikusle baino gehiagorentzako espazioa	1.123,50 €

1.- Zehaztapenak

Prezioak egun erdirako edo egun osorako ematen dira.

Alokairuen prezioek ez dituzte barne hartzen elementuen muntatze eta desmuntatze lanen, garbiketaren, argiaren eta bestelakoen gastuak.

Era berean, ez dituzte barne hartzen kontrol langileen orduak, ekitaldia instalazioaren ordutegitik kanpo antolatzen bada.

KIROLAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUTEN JARDUERAK ANTOLATZEKO INSTALAZIOEN LAGAPENA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA

Eskaera 30 egun lehenago, gutxienez, egingo da.

Instalazioak laga edo alokatu ahalko dira, baldin eta ez badago kirol jarduera programaturik.

Beste erakunde publiko edo pribatu batzuen eskaerak banan-banan aztertuko dira, erakunde pribatuei beti kobratuko zaiela eta erakunde publikoak (adibidez, eskolak) ordaintzetik salbuetsiko direla. Dena den, gerta liteke azken horiei lanorduetatik kanpo langileek sortzen dituzten gastuak bakarrik kobratzea.

Garatzen den edozein jardueratarako, antolatzaileak erantzukizun zibileko eta instalazioaren kalteko aseguruia egin beharko du.

Aurretik aipatu diren puntuak ez dira kontuan hartuko Udalak berak antolatzen dituen jardueretarako (dantza alardea, jaiak eta abar).

C.- ERABILERA-HITZARMENAK.

Basauriko Kirolaren Udal Erakundeak eta klubek, eskola ekipoek, ikastetxeek, kirol eta/edo kultur elkarteek eta erakunde pribatuek hitzarmenak sinatu ahalko dituzte, kirol instalazioen erabilera arautzeko. Kasu horretan, tarifak ordenantza honetan ezarritakoaren arabera murriztu ahalko dira.

V. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAREN ZERBITZUA.

Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren (EELZ) kostua ordaintzeko aplikatu beharreko tarifa honako formula honen arabera kalkulatu da:

$$TASA = B * (1 + OK/100) + FUO$$

Azalpena:

B = Familia unitatearen baliabideen baremo koefizientea, hurrengo formula aplikatuz kalkulatu da:

$$B = (((FUS/12) - HOE) * 15) / 100$$

Azalpena:

FUS = FAMILIA UNITATEAREN URTEKO DIRU-SARRERAK

HOE = indarreko HILEKO OINARRIZKO ERRENTA, familia unitateko kideen kopuruaren arabera

OK = Familia unitatean onetsitako hileko zerbitzu orduen kopurua

FUO = Familia unitatearen ondarearen balioa kontuan hartzen duen koefizientea, 36.000 €-tik beherako balioa duen kasurako, hurrengo laukiaren arabera:

FAMILIA UNITATEA		KIDE 1	2 KIDE EDO GEHIAGO
ONDAREAREN BALIOA		FUO	FUO
PENTSIODUNAK	OROKORRAK		
8.000 €-raino	8.000 €-raino	0	0
8.001 eta 16.000 € artean	8.001 eta 16.000 € artean	10,00€	5,00€
16.001 eta 24.000 € artean	16.001 eta 24.000 € artean	20,00€	10,00€
24.001 eta 35.918,41 € artean	24.001 eta 31.608,19 € artean	30,00€	20,00€
36.001 eta 44.897,97 € artean	31.608,20 eta 40.587,77 € artean	-	30,00€

Aplikatzeko irizpideak:

- **Hileko gutxieneko tasa Udalak kontrataturiko enpresari ordaintzen dion zerbitzu orduaren prezioa izango da.**

VI. PERTSONA NAGUSIEN AISIALDIRA ZUZENDUTAKO TAILER ETA IKASTAROAK.

Pertsona nagusien astialdira dedikatutako Tailer eta Ikastaro bakoitzean matrikulatzeagatiko tasa, Jubilatuen Udal Egoitzetan edo Udalak helburu horretarako jartzen dituen lokaletan garatzen direnean.

Matrikulatzeagatiko eta ikastaro bakoitzeko tasa: 18,00€